



OÑATIKO UDALA

partehartzea@oinati.net
Teléfono: 943 78 04 11
Fax: 943 78 30 69
20560 OÑATI



ALKATEAREN ADIERAZPENA

Oñatiko Udalak honakoa adierazi nahi die herritarrei:

Udal Gobernu taldeak, hondakinen gaur egungo arazoa kontuan izanik, jakina den moduan, hondakinen bilketa selektiborako hautu garbia egina du. Gaur egun sortzen ditugun hiri hondakinen % 40 inguru hondakin organikoa dela kontuan izanik, hondakinen kudeaketan dugun erronka nagusienetako bat gai organikoa hiri hondakinen zirkuitutik atera eta norberak kudeatzea da.

Hau kontuan izanik, Oñatiko Udalak hiri eremuan kokatzen diren auzoetarako autokonpostaia gune komunitarioak ezartzeko plangintza bat burutuko du. Horretarako hirigunean kokaturiko berde gune batzuetan autokonpostaia gune batzuk egokituko dira. Hasera batean esperientzia pilotu gisa abiatuko dugu baina epe ertainean, behin beharrak zehaztuta, azpiegitura egonkorren plangintza burutuko dugu.

Haserako esperientzia honetan, guneak egoki dimentzionatu ahal izateko beharrezko dugu jakitea zenbat herritarrek parte hartuko luketen.

Horregatik autokonpostaia egiten interesa izanez gero, eskertuko genizuke Oñatiko Udalari honako informazioa helaraztea:

- Izen abizenak
- NAN zenbakia
- Helbidea eta telefonoa
- Helbideko senide kopurua.

Informazioa helarzateko bideak:

- Telefonoz: 943 78 04 11
- Emailez: partehartzea@oinati.net
- Udaleko bulegoetan: Foruen Enparantza, 1 (atzeko atetik sartuta), goizeko 9,00etatik 14,00etara.

Aurrez mila esker zure parte hartzeagatik.

COMUNICADO DE ALCALDÍA

El Ayuntamiento de Oñati comunica lo siguiente:

Como todos sabemos el equipo de gobierno ha tomado una decisión clara respecto a la recogida selectiva de residuos. Teniendo en cuenta que aproximadamente el 40% de los deshechos urbanos que generamos son residuos orgánicos, uno de los retos importantes que se nos presenta dentro de la gestión de los residuos es la autogestión de los mismos, sacandolos del circuito de los residuos urbanos

Considerando lo anterior, el Ayuntamiento de Oñati ha planificado crear espacios de autocompostaje comunitario en los barrios urbanos. Para ello se adecuarán algunos espacios verdes ubicados en zonas urbanas. En un principio empezaremos con una experiencia piloto, y en un breve espacio de tiempo cuando estén definidas las necesidades, procederemos a planificar la infraestructura de carácter permanente.

Para poner en marcha ésta primera experiencia es importante dimensionar correctamente los puntos de autocompostaje. Para ello es imprescindible conocer el número de vecinos que participarán en esta primera fase.

Por todo ello si tienes interés en el autocompostaje agradeceríamos que nos hicieras llegar al Ayuntamiento la siguiente información:

- Nombre y apellidos.
- D.N.I.
- Dirección y teléfono.
- Componentes de la unidad familiar.

Vías para hacernos llegar la información:

- Teléfono: 943 78 04 11
- E-mail: partehartzea@oinati.net
- Oficinas municipales: Foruen Enparantza, 1 (entrada por la puerta trasera) de 9,00h a 14,00 h.

Agradeciendo el interés mostrado,

MIKEL BIAIN BERRAONDO